# ETXEKO TAMAINA HANDIKO HONDAKINAK BILTZEA

## ZER DIRA TAMAINA HANDIKO HONDAKINAK?

Honako hauek dira tamaina handiko hondakinak: altzariak, etxetresna elektrikoak, alfonbrak, koltxoiak, musika-ekipoak, telebistak, ordenagailuak, inprimagailuak, lanparak, koadroak, bizikletak, ispiluak, umeen koltxoiak, maletak…

## NOLA FUNTZIONATZEN DU ZERBITZUAK?

1. Tamaina handiko hondakinak asteartero batzen dira.
2. Interesdunak telefonoz egin behar du eskaera asteleheneko 12:00ak baino lehen. Horretarako, telefono-zenbaki hauetara dei dezake: 944 541 019 edo 944 543 435
3. Hauexek dira eskaera egiteko erregistratu behar diren datuak: Izen-abizenak, bilketa egiteko lekua, harremanetarako zenbakia eta bilduko diren hondakinen deskribapena.
4. Tamaina handiko hondakinak hurbilen dauden hondakinen edukiontzien alboan utzi behar dira, hau da, biltzen dituen ibilgailua ondo sar daitekeen lekuetan. Tamaina handiko hondakinak arratsaldean edo gauean uztea gomendatzen da, bide publikoan ahalik eta kalterik gutxien eragiteko.
5. Gehienez ere, tamaina handiko hiru hondakin atera ahal izango dira eskaera bakoitzeko. Tamaina handiko hondakin gehiago utzi nahi izanez gero, bilketa-zerbitzuko arduradunarekin koordinatu beharko da bilketa, bidea kolapsatu gabe egin ahal izateko.

### INFORMAZIO INTERESGARRIA

Gailu handi bat erosten dugunean, enpresa saltzaileak nahitaez eraman behar du aurretik geneukan gailu erabilia, eta inolako kosturik gabe egin. Erosketa online egin arren, araudi bera bete behar da.

## ZERBITZUTIK KANPO DAUDENAK (ez dira biltzen)

- Etxea edo lokalak uzteagatik, etxea husteagatik, obrengatik edo berritzeko lanengatik sortzen diren hondakinak: obra-hondakinak, leihoak, komunontziak, bainuontziak, konketak, bidetak, beirak…
- Arropa, jostailuak, liburuak eta abar dagokien edukiontzian bota behar dira.
- Industria- eta merkataritza-enpresen hondakin bereziak: paleak, ibilgailuen hondakinak, gurpilak, ontzien hondakinak (kutxak, sareak…), gailu medikoak…
- Landare-hondakinak eta nekazaritzako zein abeltzaintzako hondakinak: zuhaitzen adarrak, berotegietako plastikoak, animalien kaiolak, nekazaritzako makinak eta abar.
- Hondakin arriskutsuak: olio-bidoiak, pintura-potoak, gas-bonbonak, bateriak eta gasolina edo gasolioa izan duten ontziak.

## BERRIZ ERABILTZEKO EDUKIONTZIA (BFA – KOOPERA)

Edukiontzi zuria da. Honako hauek sar daitezke bertan: ehun-gaiak (arropa, zapatak eta osagarriak), jostailuak, liburuak, gailu elektronikoak eta etxetresna elektriko txikiak (mugikorrak, plantxak, irabiagailuak).

Edukiontziaren helburua da sortzen diren hondakinen kopurua murriztea eta materialen balio-bizitza luzatzea, bai eta edukiontzietara botatzen diren eta beste balio-bizitza bat izan dezaketen produktuak berriz erabiltzea sustatzea ere.

Zerbitzu horren bitartez, halaber, Koopera sare sozialarekin batera egiten dugu lan, eta, aldi berean, baztertze-arriskuan dauden pertsonen inklusio aktiboaren alde egiten dugu.

# RECOGIDA RESIDUOS VOLUMINOSOS DOMÉSTICOS

## ¿QUÉ SON LOS RESIDUOS VOLUMINOSOS?

Se consideran residuos voluminosos los muebles, electrodomésticos, alfombras, colchones, equipos de música, televisores, ordenadores, impresoras, lámparas, cuadros, bicicletas, espejos, coches de bebés, maletas…

## ¿CÓMO FUNCIONA EL SERVICIO?

1. La recogida de residuos voluminosos se realiza los martes.
2. La persona interesada debe realizar la petición telefónicamente antes de las 12:00 h del lunes, llamando al 944 541 019 o al 944 543 435
3. Los datos que se registran para la petición son: Nombre y apellidos, punto de recogida, teléfono de contacto y descripción de los residuos a recoger.
4. Los voluminosos se depositan junto a los contenedores de residuos más cercanos, en puntos que sean accesibles para el vehículo de recogida. Se recomienda dejar los voluminosos en horario de tarde/noche para reducir molestias en la vía pública.
5. El volumen máximo a sacar es de 3 voluminosos por solicitud. Si el número de voluminosos que desea depositar es mayor, se deberá coordinar con el responsable del servicio de recogida, para encontrar la vía para poder realizar la recogida sin colapsar el servicio.

### INFORMACIÓN DE INTERÉS

Al comprar un aparato grande, la empresa que lo vende está obligada a llevarse el aparato usado, sin ningún coste añadido. La compra online debe cumplir la misma normativa.

## FUERA DEL SERVICIO (no se recogen)

- Residuos de desalojos, vaciados de casas, obras, reformas: Escombros, ventanas, inodoros, bañeras, lavabos, bidés, cristales…
- Ropa, juguetes, libros, etc. deben depositarse en su correspondiente contenedor.
- Residuos especiales de empresas industriales y comerciales: pales, residuos de vehículos, ruedas, residuos de barcos (cajas, redes…), aparatos médicos…
- Residuos vegetales y agropecuarios: ramas de árboles, plásticos de invernaderos, jaulas de animales, maquinaria agrícola, etc.
- Residuos peligrosos: bidones de aceite, botes de pintura, bombonas de gas, baterías, recipientes que hayan tenido gasolina o gasoil.

## CONTENEDOR REUTILIZACIÓN (DFB – KOOPERA)

Es el contenedor blanco. En él tienen cabida el textil (ropa, zapatos y complementos), juguetes, libros, dispositivos electrónicos y pequeño electrodoméstico (móviles, planchas, batidora…)

El objetivo de este contenedor es reducir la generación de residuos y alargar la vida útil de los materiales y fomentar la reutilización de aquellos productos depositados en el contenedor y que sean susceptibles de tener una segunda vida útil.

El desarrollo de este servicio, lo realizamos en colaboración con la Red Social Koopera, favoreciendo la inclusión activa de personas en riesgo de exclusión.